ASTEKARIA - 2009ko maiatzaren 29an - XIII. urtea - Usurbil, 368. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua!!



Sagardo Eguna, iruditan



## Kantuz ehortz nezate
## hiltzen naizenian,
## kantuz ene lagunek
## harturik airian

USURBILGO LANBIDE ESKOLA

✆ 943 36 46 00

www.lhusurbil.com

**Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak**

Administratiboa



Elektrizitate-elektronika



Fabrikazio mekanikoa



Ura eta energia
Produkzio zerbitzu eta manten.



**Honako honen bila bazabiltza:** Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

**AURREMATRIKULA Ekainaren 1etik 12ra**

www.behetik.com

**Eskailerak igotzea... ez da oztopo!**

-plataformak -igogailu bereziak - aulki bereziak...







behetik

Añorga-txiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888

Erraustegian sortuko diren sustantziek ze ondorio dakartzate?

"...Kantzer desberdinak garatzeko arriskua, bataz beste, 4,25 aldiz handiagoa da Erraustegia kokatzen deneko 16 km-ko ingurunean."

Iturria: Ingurugiro Ingeniaritzako Institutu Graduatua. Ingenieritzako Ikastetxea.Taiwango Unibertsitate Nazionala. 2003.

Osasun-tekniko batzordea

ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK

ALKARTASUNA

Usurbilgo Udala

Albistea iruditan

# Jarraipen zabala izan zuen greba deialdiak

Greba deialdiak eragin zuzena izan zuen herriko taberna eta saltokietan. Enpresetan eta industria-guneetan ere, grebak jarraipen handia izan zuen baina ez zen erabatekoa izan. Oinarrizko zerbitzuak martxan izan ziren, ordea; anbulatorioa, esate baterako.

Usurbilen bertan ez zen manifestaziorik egin. Aurreko egunetan, auto karabanan ibili ziren deialdiaren berri emanez. Baina maiatzaren 21ean, greba egunean, Hernanin egin zen eskualdeko manifestazioa.

Eguerdian, ordea, Gipuzkoa mailako manifestazioa egin zen Donostian, aspaldiko jendetsuena.



GREBAREKIN BAT EGIN ZUTEN ENPRESA ASKOTAN.

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com
Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.
Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.
Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.
Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.
Tirada: 2.600 ale
Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

MIKEL LABOA, IN MEMORIAN — 5. OR.
UGAITZ AGIRREREKIN SOLASEAN — 6. OR.
SAGARDO EGUNA, IRUDITAN — 10. OR.
UDAJOLASEN IZENA EMATEKO GARAIA — 12. OR.

Usurbilgo Udala
AIRE, AIRE !!!
Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza











Imanol Ubeda

# Beti arte, Manuel

Kale Nagusian bizi zen. 36ko gerrari buruzko erreportajea prestatzen ari ginen eta Manuel Goenagak parez pare zabaldu zizkigun bere etxeko ateak. Bi arratsalde pasa genituen elkarrekin. Bigarren egunean berarengana hurbildu nintzenean, "kaixo, tokaio" esanez hartu zidan etxeko atarian. Duela gutxi zendu da Manuel. Heriotzaren berri izan nuenean, NOAUA!ri 2005eko udan eskainitako elkarrizketa ekarri nuen gogora, beste behin ere. Eta duela lau urte bezala, gaur ere, mamitsuak dira oso bere adierazpenak.

Manuelek esanda jakin genuen 1936ko irailean errepublikanoek kuartela jarri zutela Zarautzen. Hara joan zirela Usurbilgo hainbat gazte, tartean, Manuel bera.

Francoren altxamenduaren kontra borrokatu zuen Manuel Goenagak, Avilesen (Asturias) preso hartu zuten arte. Historialariek diote 1939an amaitu zela gerra. Baina Manuel eta beste askorentzat, askoz beranduago bukatu zen. Francoren errejimenak, urte luzez, preso eta lanean izan zituen halabeharrez hainbat atxilotu, "batallón de trabajadores" izenekoetan.

Lehenik Palma de Mallorcara bidali zuten Manuel, porlanazko fortinak egitera. Palmatik Asturias aldera eraman zuten gero, bertako aireportu bat egitera. Lugo de Llanerakoa, hain zuzen. 1942an utzi zuten aske.

Pasadizo hauek eta gehiago, NOAUA!ren 210. alean aurkituko dituzue (2005eko uztailean).

36ko gerrako kontuei buruz galdezka hurbildu ginen bere etxera, baina bestelako irakaspen asko ere jaso genituen. Edadeko jendeak hori du ona. Guk ezagutu ez ditugun garaien berri emateko joera. Gutxitan erreparatuko dugu, ordea, aspaldiko kontu haietan. Errespetu gutxirekin, esango nuke.

Askorentzat txikikeria izango da, baina niri garai batean herri honetan nola bizi ziren jakiteko gogoa piztu zitzaidan. Bere erantzuna, are harrigarriagoa izan zen niretzat: "jendea kantari eta txistuka ibiltzen zen kalean. Orain ez du inork kantatzen, ez du inork txisturik jotzen. Ez dut inor sentitzen". Kale Nagusian bizi zen, herri honetako giroa neurtzeko toki aproposean.

Garai zailak badira bizi ditugun hauek, ba pentsa gerra aurretik (eta ondoren, zer esanik ez) zer nolako baldintzetan biziko ziren. Hala ere, "jendea kantari eta txistuka ibiltzen zen kalean". Krisiak krisi, gehiegizko kontsumoaren aro honetan, presaka gabiltza beti, ezin toki denetara iritsi. Sikiera txistuka edo kantari biziko bagina…

Baina umorea ez ezik, bestelako kontuak ere bidean utzi ditugulakoan nago. Garai batean, dantza saioak izango ziren elkarri arrimatzeko aukera bakarrenetakoak eta, hala bizi ziren, dantzaldia noiz iritsiko zain. Orain ez dago dantzaldien beharrik elkar arrimatzeko. Baina akaso, inoiz baino distantzia handiagoa dago gure artean.

Manuelek esanda jakin genuen, beraz, dantzan ere askotan aritzen zirela, ia gehienetan esku soinuaren erritmoan. "Sueltoan, *a lo agarrau...*". Berak ez zuela gustuko dantzan aritzea baina, hara, kontu honi segika horra bota zigun aholkua: "Nik semeei esaten nien: *bi gauza ikasi behar dituzue. Bat, dantzan egin; eta bi, igeri egiten ikasi*".

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - **Imanol Ubeda** - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. Ale bakoitzean ez dira bi Ika-mika baino gehiago argitaratuko. Ika-mika bat baino gehiago iristen bada, **Noaua!**k idatzi horietako bat hurrengo ale batean argitaratzeko eskubidea izango du. **Noaua!**k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
Hurrengo alea: ekainak 5. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 1.






# Mikel Laboa, in memorian

**Herri omenaldia egingo zaio igande honetan, Usurbilen aski ezaguna zen eta bertan sarri ibili zen Mikel Laboari. Bertso, txalapartari eta aurresku artean, aurrerantzean bere izena eramango duen plaza inauguratuko da frontoi atzean. Kultur Aholku Batzordetik bultzatu da ekimena.**

### Igande eguerdian

Maiatzak 31 igandea, eguerdiko 12:00etan frontoi atzeko plazan.

- Txalapartariak.

-Joxe Domingo Aizpuruaren (Pana) bertsoak.

- Herritarron esker oneko hitzak Kultura Aholku Batzordearen eskutik.

- Plazaren izendapena eta eskultura lehiaketaren berri ematea.

- Ohorezko agurra senideei.

- Euskal Kantu Lagunak taldekoen saioa.

- Joxanton Artze.

-Musika. Iñaki Salvador eta Josetxo Silguero, Euskal Kantu Lagunak eta herritarron laguntzarekin.




IGANDE HONETAN EGINGO ZAIO OMENALDIA MIKEL LABOARI.

Omenaldi egunean, sinadura-liburu bat zabalduko da nahi duenak zerbait idatzi diezaion. Ordurako aldez aurretik zerbait idatzirik prestatua izatea gomendatzen da.

# Ostiral honetan egingo da herri galdeketa prestatzeko bilera

Ostiral honetan, maiatzak 29, Udalak herriko ingurumen alorreko eragileekin bildu nahi du hondakinen kudeaketaren inguruan egingo den galdeketari buruz hitz egiteko. Herritarrei luzatuko zaien galderak bere baitan zer jaso behar duen zehazteko. Beraz, udal ordezkariekin batera, herriko eragileak izango dira zer galdetu erabakiko dutenak.

### Osoko bilkuran, galdeketa hizpide

Egun batzuk lehenago, maiatzaren 26ko ohiko osoko bilkuran, galdeketa horren emaitza loteslea izango den bozkatu behar zuten udal ordezkariek (datorren asteko NOAUA!n emango dugu maiatzaren 26ko udalbatza plenoaren berri).

Galderak zehazten duen proposamenak, gero, Ingurumen eta Nekazaritza Batzordetik igaro beharko du. Eta handik osoko bilkurara eramango dute, udal ordezkariek bozka dezaten.

### Bilera Sutegin egingo da, arratsaldeko 18:30ean

Herriko ingurumen eragileekin antolatu duen bilera Sutegin egingo da. Maiatzaren 29an ostirala, arratsaldeko 18:30ean Sutegin.

## Olarriondo-Ugartondoko etxebizitzei buruzko bilera

Olarriondo eta Ugartondo eremuetako babes ofizialeko eta tasatuetako etxebizitzen egoera zertan den azaltzeko informazioa eskainiko du gobernu taldeak jendaurrean. Maiatzaren 28an finkatu du bilkura irekirako eguna, kiroldegian. Landuko diren gaiak:

1- Zozketa zerrendaren egoera azaltzea; nondik eta zergatik dagoen egoera hau.

2- Etxebizitzen egoera azaltzea: ibilbidea, eman diren urratsak.

3- Aurrera begirako aurreikuspena.

**Eguna:** maiatzak 28 osteguna.
18:30, Oiardo kiroldegian.

## Jaietako egitaraua osatzeko lehiaketa

Lehiaketa honetara norbanakoak zein taldeak aurkez daitezke. Jaietako egitarauaren diseinua egiteko, egitarauaren testua Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria Zerbitzuan jaso behar da.

Lanaren neurria librea izango da.

Erabakia hartzerakoan, egitaraua erraz irakurtzeko modukoa izateari garrantzia emango zaio.

**Maiatzaren 29a baino lehenago aurkeztu behar da** diseinu-proposamena. Saria 500 eurokoa da.

## Ekainaren 2an, Jai Batzordearen bilera

Lehen bileran, Santixabeletako jai egunak zehaztu ziren, uztailaren 1etik 5era egingo dira festak. Duela aste pare bat egindako bileran, ordea, egunez eguneko egitaraua bideratu zuten.

Hurrengo bilera **ekainaren 2an** izango da, asteartea, arratsaldeko **18:30etik aurrera udalbatza pleno aretoan.**

# Ugaitz Agirre,
## bidea jorratzen ari den idazle gaztea

**Pintura, dantzako klaseak jaso eta eman, eskubaloian aritu, ikasketak aurrera atera... Eta oraindik Ugaitz Agirre gazteak, tarterik hartzen du bere zaletasunari bidea emateko. Idaztea du gustuko, baita ondo egin ere, jada bitan irabazi baitu Urruzuno literatur lehiaketa. Sari gisa, irailean Andaluzia eta Portugal aldera doa, gainerako sarituekin batera.**



SARIEK ATEAK ZABALDU ETA IDAZTEN SEGITZEKO BULTZADA EMAN DIOTELA AITORTU DIGU UGAITZ AGIRREK.

**NOAUA! Urruzuno literatur lehiaketa irabazi berritan, gustura ezta?**
**Ugaitz Agirre.** Oso ondo. Amak gogorarazten zidan moduan, iaz data hauetan iritsi zen erantzuna. Urduri ia iristen zen aurten, eta azkenean, iritsi zen. Iaz aurkeztu nuen lehen aldiz, irakasleak proposatuta. Idazlana bidali eta irabazi egin nuen.

> **UGAITZ AGIRRE**
> “Lehiaketa batera aurkeztu eta irabazi ondoren, jendeak zure idazteko modua onartzen duela pentsarazten dizu”

**N. Idazlan saritua, zerri buruzkoa zen?**
**U. A.** Ironiarekin jolastuz eta hitzak asmatuz munduko erokerien inguruko testua izan zen bidali nuena. Gaur egungo mundu hau nola doan kontatzen nuen.

**N. Bidaia izan ohi da saria. Noiz eta nora zoazte?**
**U. A.** Irailaren hasieran, 5etik 15era. Aurten, hamar egunetarako Andaluzia eta Portugal aldera goaz. Ia aurtengoan iazko esperientzia errepikatzen den.

**N. Nondik datorkizu idazteko zaletasuna?**
**U. A.** Felix Aizpurua literatur lehiaketan parte hartu izan dut. Aurten beste idazlan bat bidali dut Lasarte-Oriako literatur lehiaketara. Auskalo zer pasako den. Lehen, bertsoak idazten aritzen ginen. Beti landu izan dugu bertso idatzia. Ahozkoarekin beranduago hasi ginen, eta jada bukatu egin dugu. Hasi bertsotik hasi nintzen. Eboluzionatzen joan eta poesia idaztera igaro naiz.

**N. Ikastola barruan osatutako taldean hasi zinen?**
**U. A.** Udarregi ikastolako bertso taldean egon nintzen iaz arte. Aurten, Lasartera joan naiz. Akaso segi nezaken, baina denbora faltagatik, utzi egin nuen. Hor bukatu dira bertsolaritza kontuak. Ia beste urte batean jarraitzen dugun.

**N. Bertsoak, ahoz kantatu baino idaztea nahiago?**
**U. A.** Idazten aritu izan naiz. Bat batekoak azken bizpahiru urteetan izan ziren.

**N. Sari honek aldatzen du literaturarekiko duzun zaletasuna?**
**U. A.** Zerbait idatzi, lehiaketa batera aurkeztu eta irabazi ostean, jendeak zure idazteko modua onartzen duela pentsarazten dizu. Zuk ere horretarako balio duzula pentsatzeko balio dizu. Ateak zabaldu eta idazten segitzera bultzatzen dizu.

**N. “Droga” moduko bat izan liteke?**
**U. A.** Bai, lehen txinparta moduko bat.

**N. Poesia, prosa… bat aukera dezakezu, edo biak tartekatzea nahiago?**
**U. A.** Bietan idazten dut. Poesia aldetik gehiago dudala esaten didate. Baina prosa lantzea ere ondo dator batzuetan.

**N. Istorioren bat sortzeko esango balizute orain, zerbait bururatuko litzaizuke?**
**U. A.** Une honetan ez. Urruzunora

# “Sortzen segitzeko esaten didate, baina neure asmoa historia ikastea da”

bidalitako idazlanean, drogazale baten istorio bat kontatzen nuen, munduaren bilakaerarekin nahastuta. Gurasoak auto istripuz hiltzen zaizkio, gero drogen munduan sartzen da. Azkenean hil egiten da. Lasartera bidalitakoa, amets eta iraultzen inguruko istorioa zen. Boterea edo iraultza bezalako kontzeptuak erabilita istorio bat sortu nuen.

**UGAITZ AGIRRE**

“Batzuk ezetz pentsatu arren, badut astirik. Azterketa garaitik kanpo, gehiago lantzen duzu”

**N. Batxilergoko lehen maila bukatzen. Etorkizuneko ikasketak idazteko zaletasunari begira planteatu dituzu?**

**U. A.** Sortzen segitzeko esaten didate. Baina neure asmoa historia ikastea da. Aspalditik garbi dut. Horrekin segitzen dut, eta ez dut uste aldatuko dudanik.

**N. Panderoa jotzen duzu. Literaturan bezala musikan ere maila berean murgiltzeko asmo bera duzu?**

**U. A.** Ez. Musika belarrietan bakarrik entzuteko baliatzen dut.

**N. Ikasketak eta testuak sortu… Denbora ba al da denerako?**

**U. A.** Batzuk ezetz pentsatu arren, badut astirik. Azterketa garaitik kanpo, gehiago lantzen duzu. Azken aldian, azterketak izan ditut eta ez dut ezer egin. Baina noizean behin, lokalera joan eta orri bat eskura izan dudanean, zerbait idatzi dut. Halakoak egiten ditut.

**N. Idazle edo historialari, nola ikusten duzu zeure burua urte batzuk barru?**

**U. A.** Onena biak egitea litzateke. Baina auskalo nora iritsiko garen, auskalo.

## Gazte Ekimeneko kide

**N. Gazte ekimeneko kidea zara. Santixabeletako prestaketa lanak zer moduz doaz?**

**U. A.** Lanak aurrera doaz. Goitibeherak edota kontzertuak antolatzen ari gara. Kamiseta batzuk ateratzeko asmoa ere badugu. Behintzat jendea badago laguntzeko.



HISTORIA ALORRERA BIDERATU NAHI DITU IKASKETAK UGAITZ AGIRREK.

**N. Gaztetatik sariak irabazten. Horrek erronka handiagoak planteatzera bultzatzen dizu?**

**U. A.** Helburua azkenean, liburu bat argitaratzea da. Irabazten duenaren helburua, liburu bat argitaratzea izan ohi da; antzerkia, poesia edo prosa, berdin dio. Ia zerbait ateratzen den. Baina oraindik lantzen ari garenez, denbora eman. Gazte sari hauek bukatzean, gero etorriko denn etorriko da.

# Bertsoak badu etorkizuna Udarregi ikastolan

**Urtean zehar egindako lana erakustea zen euren asmoa, baina beste zerbait ere helarazi zuten Bertsogintza eta Ahozkotasuna lantzen aritu diren Udarregi ikastolako LH 5. eta 6. mailako ikasleek aste hasieran ikastolan bertan eskaini zuten emanaldian; euren bertsotarako zaletasuna.**

Unai Muñoak gidatutako saioaren abiapuntua, herriko jaiak izan ziren. Gai hori ardatz hartuta, hainbat bertso eskaini zituzten ikasleek. Gerora, ETBko Mihiluze programaren estilora, bertsoa jolasteko aitzakia gisa hartu zuten. Ikasleek bertsoak abestu ahala, aurrean zuten publikoak aukeran zituen bi hitzen artean amaiera egokia asmatu behar zuten. Bertsotarako abileziaz gain, deigarriagoa izan zen, bertsotarako erakutsi zuten zaletasuna.

Ikasle, irakasle eta gurasoen artean ikastolako erdiko aretoa jendez bete zen.



IKASLE, IRAKASLE ETA GURASOEKIN ARETOA JENDEZ GAINEZKA IZAN ZEN.

# Ekainaren 8tik 14ra, Etiopiaren aldeko elkartasun erakusketa

**Ana Urdangarin, Larraitz Izagirre eta Pelex herritarrak elkartasun ekimen bat aurrera ateratzeko lanetan murgilduta dabiltza egunotan. Artista desberdinen lanekin osatutako erakusketa bat zabalduko dute ekainaren 8tik 14ra Barrenkalen. Etiopian dagoen Angel Olaran apaiz hernaniarrari bidaltzeko. Urdangarin eta Izagirre ere uztailean aipatu herrialdera doaz hilabeterako.**



ERAKUSKETA SOLIDARIO HONETAN JASOTAKO LAGUNTZA, ETIOPIAN BIZI DEN ANGEL OLARAN (IRUDIAN) HERNANIARRAREN ESKUTIK BIDERATUKO DUTE.

Hamabost bat urte daramatza Angel Olaran hernaniarrak Etiopian hainbat elkartasun proiektu garatu eta bertan bizitzen. 1.500 gaztetxorentzat eskola eraiki du, zuhaitzak landatu edo ur putzuak lortzeko lanean aritzeaz gain. Hilabeterako Etiopiara bertara doaz uztailean Ana Urdangarin eta Larraitz Izagirre usurbildarrak.

**ERAKUSKETAN LANAK SALGAI**

"Barrenkaleko lokalean, Artelanak erosi ahal izango dira 20 euroren truke. Laguntza hori Etiopiara bidaliko da"

Afrika aldera abiatzerako, bertakoei laguntzeko moduren bat aztertzen ari ziren eta zer otuko eta, elkartasun erakusketa bat antolatzea. Haiengana batu da Pelex ere. Artista usurbildarrak klaseak Hernanin ematen ditu. Bere ikasleen artean, Olaranen iloba bat dago. Berarekin hitz egin ostean Ana, Larraitz eta Pelex bera bildu dira aipatu bezala, elkartasun izaerako erakusketa bat martxan jarri eta etiopiarrak laguntzeko.

## Elkartasun tonbola

Artista talde baten lanak ikusgai egongo dira ekainaren 8tik 14ra arte, Barrenkalen Udalak duen lokalean. Bertatik osteratxo bat egin, baina artelanak ere erosi ahal izango dira 20 euroren truke. Bitxiak, margolanak, eskulturak… denetarik egongo da. Erakusketa solidarioan lortutako laguntza Angel Olaranengana bideratuko da, Etiopiara.

Bestalde, tonbola moduko bat ere antolatu nahi dute elkartasun ekimen honetako antolatzaileek. Hiru artelan desberdin aukeratu, eta euro batean salgai jarriko diren txartelak erosten dituztenei egokituko zaizkie.

Inaugurazio egunean, erakusketako artelanen egileak biltzeko asmoa dute antolatzaileek. Astebetez, erakusketan dagoena ikusi, aukeratu eta gustuko artelana etxeratzeko modua izango da. Etiopiarren alde.

## Gabeziei aurre egiteko baliatuko da laguntza

Guztia azkar, oso azkar antolatzen ari dira. Erlojuz kontra dabiltza antolatzaileak, irekiera egunerako dena prest egon dadin. Erakusketa solidarioan jasotako laguntza Etiopiara iritsiko dela ziurtatu nahi dute. Alde horretatik fidatzeko eskatzen diete herritarrei. Aipatu herrialdean dituzten gabeziei aurre egiteko baliatuko da laguntza.

### Erakusketa Barrenkalen Ekainak 8, ekainak 14

**Inaugurazioa:** ekainak 8, astelehena.

**Ordutegia:** astelehenetik ostiralera 18:30-20:30; larunbata, 12:00-14:00 // 18:30-20:30. Igandea, 12:00-14:00.

**Tokia:** Barrenkaleko lokala (udaletxe ondoan).

# Ekainaren 1ean zabalduko da Zumarte Musika Eskolan matrikulatzeko epea

**Ikasturtea amaitzera doa. Baina oporrak hartu baino lehen, datorren urteko matrikulazioa osatu behar da. Datorren aste osoan, matrikulazioa egiteko Zumarte Musika Eskolako ateak zabalik izango dira, goizez nahiz arratsaldez.**

2009- 2010 ikasturteko matrikulazioa ekainaren 1ean hasi eta ekainaren 5ean amaituko da. Matrikula osatzeko ordutegia hauxe izango da:

Goizez, ekainaren 3an asteazkena izan ezik, 10:00etatik 13:00era.

Arratsaldez, egunero, 16:30etik 19:30era.

## Ikasgaiak

Hauek izango dira datorren urtean aukeran izango diren ikasgaiak: Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, saxofoia, biolina, perkusioa, klarinetea, abesbatza, eskusoinua, trikitixa, panderoa, alboka, pianoa, txistua, gitarra, flauta, talde instrumentalak.


Urtean zehar ikasitakoa kontzertuen bidez erakusteko aukera izaten dute Zumarte Musika Eskolako ikasleek. Irudian, Konbo Taldea.

Kontuan izan gutxieneko adina 4 urtekoa dela. Informazio gehiago Musika Eskolan bertan (943 371594).

## Zumarte-Txiki abesbatza, asteburu honetan Donostiako Victoria Eugenian

**Asteburu honetan, “Mariren Labirintoa” izeneko musikala eskainiko da lehen aldiz Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Musikal honetan, Donostialdeko musika eskolek hartuko dute parte. Pasaia, Hernani, Lezo, Donostia, Astigarraga, Errenteria eta baita Usurbilgoak ere. Musikalaz aparte, zenbait kontzertu txiki ere eskainiko dira asteburuan zehar. Tartean, Zumarte Musika Eskolako Konbo Taldeak joko du.**

“Mariren Labirintoa” musikalaren inguruan egingo diren kontzertuetan Zumarte-Txiki abesbatza arituko da. Maiatzaren 29an ostirala, arratsaldeko 18:30ean arituko dira Victoria Eugeniako Club aretoan.

“Dunbala eta Dunba”, “Gona gorria”, “Hitz Jolasak”, “Scoo be doo song” eta “Hallo Django” kantuak eskainiko dituzte Amaia Aldalurren zuzendaritzapean.


Irudian, Zumarte-Txiki abesbatzako kideak.

Zumarte Konbo Taldea ere arituko da Victoria Eugenia antzokian, baina larunbatean, maiatzak 30, arratsaldeko 19:00etan hasita. Okendo Plazan, Victoria Eugenia ondoan.

Luis Gudek zuzenduta, Konbo Taldeak bi abesti eskainiko ditu: “Swinging the blues” eta “Doble stop stomp”.

# Datorren urtekoa, gertuago

Duela gutxi zendu den Aialde Berri sagardotegiko Martxel Zubimendiri egindako omenaldiarekin ekin zitzaion Sagardo Egunaren XXVIII. edizioari. Hortik aurrera, sagardo edanak ez zuen etenik izan eguerdi partera arte. Arratsaldean, frontoi inguruan eta tabernetan jarraitu zuen jai giroak. Euria egin zuen, gogotik bazkalostean, baina ez zuen inondik inora jai giroa zapuztu. Eguerdi partean, bereziki, erruz bildu zen jendea Askatasuna plaza, frontoia eta Dema plaza inguruan. Datorren urtekoa, gertuago dago jada.









BATZUK HALA IBILI ZIREN. ESKU BATEAN ATERKIA, BESTEAN BASOA.



EGURALDIA EZ ZEN OZTOPO IZAN. DEMA PLAZAN SAGARDOZALEAK, BOTATZAILEEK ZERBITZATURIKO SAGARDOAREN ZAIN.

# Arantxa Unanue nagusitu zen lehiaketan

Urtero gertatu ohi den moduan, botatzaileen lehiaketak sagardozale asko erakarri zituen frontoira. Epaimahaiak irabazleen izenak argitu bitartean, *Txamunto*, filarmonika lagun, kontu kontari eta kantu kantari aritu zen.

Zazpi izan ziren lehiaketan izena eman zutenak, emakume bakarra Arantxa Unanue. Ba bera izan zen lehen saria etxeratu zuena. Bigarren Iker Muguruza izan zen eta Urko Manterola hirugarren. Hirurek, Arzak jatetxeak egindako sagar-postreak eraman zituzten sari moduan.









FRONTOI ATZEAN, EUSKAL PRESOEN ALDEKO ELKARRETARATZEA EGIN ZEN.




ERRAUSKETAREN AURKAKO PLATAFORMA SINADURA-BILTZEN ARITU ZEN, EUSKO LEGEBILTZARRAK HONDAKINEN LEGE BERRI BAT EZTABAIDATU ETA ONARTU DEZAN.

# Udan pentsatzen

## Zubietako jolas txokoetan izena emateko epea laster amaituko da

**Udako oporrak urruti daudela dirudi. Baina udan pentsatzen hasteko garaia da hau. Udaleku irekiak antolatu dira Usurbilen eta Zubietan. Azken honetan, gainera, bi hilabetez luzatuko dira udako txokoak. Izena emateko epea, bi kasuetan, aste honetan amaituko da.**

Zubietan, Udako Txokoak bi hilabetez luzatuko dira, uztailean eta abuztuan. 2-11 urteko haurrek izango dute izena emateko aukera. Ikasturtean bezala, Udako Txokoetan ere Eskola Txikia izango da haurren aisialdiko egoitza nagusia. Udako Txokoak goizez egongo dira martxan, 9:30etik 13:30era. Aurten, berritasun bezala, hilabeteko lehenengo edo bigarren hamabostaldirako izena emateko aukera izango da.



ZUBIETAN, IZENA EMATEKO ORRIA BETE ETA ALAMANDEGIKO BUZOIAN SARTU BEHAR DA.

### Maiatzak 29, izena emateko azken eguna

Kuota, ordea, ez dago zehaztuta oraindik. Izena ematen duten haurren kopuruaren arabera zehaztuko da ordaindu beharrekoa.

Halere, Eskola Txikiko haurren kuota merkeagoa izango da. Informazio gehiago: 618700479.

Izen ematea maiatzaren 29an, ostiral honetan amaituko da. Izena emateko orria bete behar da eta orri hori, gero, udaletxeko buzoian sartu behar da (Alamandegin).

# Kaxkoan, Udajolas

**Iaz bezala, Usurbilgo Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarteak elkarlanean antolatu dute "Udajolas". 4 eta 12 urte (HH3-LH6) bitarteko haur eta gaztetxoei zuzenduta dagoen udaleku irekia.**

Gehienezko plaza kopurua 95 umekoa izango da, beraz, izena ematen duten lehendabiziko 95 umeak onartuko dira, ez gehiago.

Uztailaren 6an hasi eta 30ean amaituko da Udajolas (09:30-13:30).

**Izen emateko epea:** maiatzaren 20tik 29ra (biak barne). NOAUA!ren egoitzan (Bordaberri kalea 3).

**Izen emateko ordutegia:** astelehenetik ostiralera: 17:00-19:00.

**Kuota:** 72 euro. Familia ugaria: 60.



INOIZ BAINO HAUR GEHIAGOK EMAN DUTE IZENA AURTENGOAN.

**Ordainketa:** Euskadiko Kutxan. Bertan, haurraren izen-abizenak adierazi: 3035 0140 34 1400025811

Izen ematerakoan ordainagiriaren kopia eta izen emateko orria aurkeztu behar dira. Epez kanpoko izen-ematerik ez da onartuko inolako kasutan.

Harremanetarako: 943 360 321.

## Bihurri ludotekan bazkide egiteko azken eguna, ekainak 12

2009 urtean Bihurri ludotekako bazkide egiteko azken eguna ekainaren 12a izango da. 2010eko urtarrila arte, ez da berriro bazkide egiteko aukera izango.

Giltzak ere, ekainaren 12an emango dira 18:00etatik 19:00etara, Bihurri ludotekan bertan.

Bestalde, garbiketa txandetan izena eman ez dutenei lehenbailehen ematea eskatzen zaie, bestela zozketa bidez egingo da lan-banaketa.

# Atez ateko bilketari esker, ontzi arinetan %88tik gora birziklatzen da

**Atez ateko bilketa sistemaren emaitza orokorrak ezagutarazi ziren duela aste batzuk. Orain gaika bildutakoaren zenbatekoa jakinarazi da. Ecoembesen arabera, bildutako ontzi arinek %88,42-ko purutasun edo garbitasuna dute.**

Beste modu batean esanda, %11,57ko inpropioak baino ez dituzte jasotako ontzi arinek. Ehuneko hori berez baxuagoa da, Ecoembesek inpropiotzat jotzen dituen ontzi arinetako zenbait osagai birziklatu daitezke eta.

Emaitza hauek modu ezin baikorragoan interpretatzen dira Udaletik. Atez ateko esperientzia batek izan duen hasierarik onenetako baten aurrean gaude. Eta inpropioen portzentajea kontuan hartuta, Udalak hobariak jasoko ditu.

## Kontainerren sistemarekin baino hobeto

Eduki ontzien sistemako bilketa datuak hobetu ditu atez atekoak, ontzi arinei dagokienean ere. Atez atekoarekin 24 kilo pertsona eta urteko jaso dira Usurbilen atez atekoa martxan jarri denez geroztik. Iaz San Markosko Mankomunitatean, bataz beste 16 kilo jaso ziren pertsona eta urteko.

Baina beti zer hobetua badagoenez, Udaletik pare bat gomendio kontuan izatea aholkatzen dute. Batetik, ontzi arinak etxe atarira ateratzeko zabor poltsak ez erabiltzea, plastikozkoak baizik. Eta ontziei estalkiak kentzeaz ez ahaztu.

| ONTZI ARINAK | Kg | % |
|---|---|---|
| **Ecoembesek onartutako materiala** | **220,84** | **%88,42** |
| **Polietilenozko tereftalatoa** (ur edo garagardo botilak) | 58,96 | %23,6 |
| **Dentsitate altuko polietileno naturala** (esne botilak, garbigarriak...) | 12,34 | 4,9% |
| **Dentsitate altuko potietilenoa,** koloreak (xanpua, esnekiak...) | 28,1 | 11,3% |
| **PVC Binilozko polikloruroa** (kolore urdineko ur botilak) | 0,38 | 0,2% |
| **Film** (botila pack-ak) | 16,1 | 6,4% |
| **Film erabilera bakarreko poltsak** (erosketetako poltsak, etxetresna elektrikoen estalkiak) | 13,94 | 5,6% |
| **Puntu berdedun poltsak** (yogurt potoak, margarinak...) | 27,26 | 10,9% |
| **Puntu berdedun altzairua** (kontserba latak) | 32,16 | 12,9% |
| **Puntu berdedun zilarra** (edari latak) | 2,38 | 1,0% |
| **Puntu berdedun edarien kartoia** (tetrabrick) | 29,22 | 11,7% |
| **Puntu berdedun egurra** (marrubi kaxak) | 0 | 0,0% |
| **Ecoembesek onartzen ez duen materiala** (inpropioak) | **28,91** | **11,57%** |
| **Materia organikoa** | 0,2 | 0,1% |
| **Loretoki eta inausketen hondakinak** | 0 | 0,0% |
| **Zelulosak** | 0,8 | 0,3% |
| **Ehunak** | 0,6 | 0,2% |
| **Ontziratzeko ez den egurra** | 0,2 | 0,1% |
| **Saltoki eta industrietako ontziratzeko egurra** | 0 | 0,0% |
| **Ontziratzeko beira** | 0,74 | 0,3% |
| **Ontziratzekoa ez den plastikoa** (zabor poltsa izan ezik) | 2,26 | 0,9% |
| **Zabor poltsa filma** | 4,8 | a1,9% |
| **Industria eta saltokietako ontziratzeko plastikoa** | 6,96 | 2,8% |
| **Saltoki eta industrietako filma** | 2,6 | 1,0% |
| **Lan txikiagoetako hondakinak** | 0 | 0,0% |
| **Ontziratzeko ez den altzairua** | 0,21 | 0,1% |
| **Industria eta saltokietako ontzien altzairua** | 2,2 | 0,9% |
| **Ontziratzekoa ez den zilarra** | 0 | 0,0% |
| **Industria eta saltokietako ontzien zilarra** | 0 | 0,0% |
| **Besteak** | 2,5 | 1,0% |
| **Papera eta kartoia** | | 1,9% |
| **Inprimatutako papera** | 1,78 | 0,7% |
| **Puntu berdea duten etxeko ontziak** | 1,36 | 0,5% |
| **Puntu berdea ez duten etxeko ontziak** | 0,7 | 0,3% |
| **Puntu berdea duten saltokietako ontziak** | 0 | 0,0% |
| **Puntu berdea ez duten saltokietako ontziak** | 1 | 0,4% |
| **Guztira** | **249,75** | **100%** |

ALIPROX
Kale Nagusia 10
✆ 943 361 182
USURBIL




Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ✆ 943 362 725

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
✆ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

# Zuhaitzen izenak topatu letra-zopan

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| W | U | A | L | A | U | N | I | P | B | H | J |
| T | S | O | L | I | Z | A | R | R | A | M | Z |
| R | G | G | L | B | K | R | P | B | T | E | B |
| R | U | A | Z | A | I | L | O | N | G | A | M |
| B | N | P | B | K | X | M | A | I | I | K | A |
| C | Q | N | G | A | Z | B | Z | F | C | V | X |
| S | B | Z | D | Z | P | I | T | G | T | Q | Z |
| Y | T | V | Y | I | T | Z | I | L | V | W | G |
| Y | A | T | C | A | C | E | R | N | S | T | W |
| A | O | D | N | O | N | I | A | T | Z | A | G |
| S | U | U | R | K | I | A | H | I | Y | G | N |
| C | L | X | Q | U | A | C | A | M | F | Q | A |

Aurki itzazu zuhaitzen izenak letra-zopa honetan: **akazia, gaztainondoa, haritza, izeia, lizarra, magnolia, pagoa, pinua, urkia.**



# Datorren astean, ekitaldi ugari Zubietan

**Datorren astean hasiko da Zubietako Kultur Astea. Gaztetxoei zuzendutako egitarau honetan denetarik aurkituko duzue: musika saioa, bideo emanaldia, puzgarriak, pailazoak, jolasak, patinaje ikastaroa... Egunero izango da zerbait. Hemen dituzue egunez eguneko ekitaldiak.**

**Ekainak 1 astelehena, 17:30ean**
Zubietako Musika Eskolako haurren ekitaldia.

**Ekainak 2 asteartea, 17:00etan**
Zubietako Eskola Txikiko haurren antzerkiaren bideo emanaldia. 17:30ean Kantu Kantoi ipuin kontalaria.

**Ekainak 3 asteazkena, 17:00etatik 19:00etara**
Puzgarrietan jolasteko aukera.

**Ekainak 4 osteguna, 17:00etan**
Hipo eta Tomax pailazoen emanaldia.

**Ekainak 5 ostirala, 17:00etatik aurrera**
Haur jolasak, buruhaundiak eta txokolatada.



HIPO ETA TOMAX PAILAZOAK EKAINAREN 4AN OSTEGUNA HURBILDUKO DIRA ZUBIETARA.

**Ekainak 6 larunbata, patinaje ikastaroa**
9:00etatik 11:00etara : hastapena
11:30etatik 13:30etara: hobekuntza
(ekarri patinak, kaskoak eta babesak).

*Ekintzetan Eskola Txikiko haurrek eta zubietarrek izango dute lehentasuna.*
*Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikia. Laguntzaileak: Usurbilgo Udala eta Zubieta Lantzen.*

# Urrezko bi domina Amador Granadorentzat

**Urrezko bi domina eskuratu zituen Espainiako txapelketan, txirrindularitza egokituan. Bat Basque Team-Gipuzkoa-CD Zuzenak taldeko kide da Amador Granado. Murtziako Puerto Lumbrerasen jokatu zen txapelketan eskuratu zituen bi dominak. Pistan, LC2 mailako erlojuaren aurkako frogan eskuratu zuen lehen domina eta iraupen lasterketan, bigarrena.**

Munduko Txapelketa izango da Amador Granadoren aurtengo helburu nagusia eta bi domina hauek bultzada handia eman diote. Irailean, Piamonten (Italia) jokatuko da iraupen lasterketako Munduko Txapelketa.

Pistako txapelketa, ordea, Manchesterren (Britainia Handia) jokatuko da azaroan.

Bien bitartean, sasoia ez galtzeko lasterketa ugari ditu begibistan. Datorren astean, esate baterako, Suitzako lasterketa batean hartuko du parte.

Ondo hasi du denboraldia eta ondo amaitu nahi luke. Ea Pekingo Joko Olinpikoetan falta zitzaion zortea ere topatzen duen Munduko Txapelketan.

### Haimar Zubeldia, Catalunyan hirugarren

Haimar Zubeldia (Astana) hirugarren izan da Catalunya Itzulian. Frantziako Tourrean izatea espero du Urdaiagako txirrindulariak.



TXIRRINDULARITZA EGOKITUAN ONENEN ARTEAN DA AMADOR.

## Ekainaren 14an, mendi irteera

Ate irekien eguna prestatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak ekainaren 14rako. Helburua, kirola sustatzea. Egun batez, kiroldegitik atera eta egun eder bat elkarrekin igarotzea. Usurbilgo Kirol Patronatuak bat egin du Foru Aldundiaren ekimenarekin.

Europako parlamentua osatzeko hauteskundeak ekainaren 7an izango direnez, Ikastolaren Eguna aurten astebetez atzeratu da. Ekainaren 14an izango da jai hori. Kirola sustatzeko, Foru Aldundiak deitu duen egunarekin bat eginez.

Usurbilgo Kirol Patronatokuak ez du Ikastolaren jaia oztopatzeko asmorik. Bi ekimenak osagarri egiteko, Usurbil-Txokoalde arteko mendi martxa antolatu dute goiz partean. Ordu eta laurdeneko mendi martxa izango da.

Adin guztiei zuzendutako ekitaldia izango da eta herriko talde ezberdinen laguntza izango dute.

Datorren astean emango ditugu ekimen honen xehetasun gehiago.

## Olarriondon birentzat afaria

Eskubaloiko errifa zozketak badu beste irabazle bat; Roman Lanberri herritarra, 4.125 zenbakidun errifaren jabea. Olarriondo jatetxean afaria egokitu zaio.

Eskubaloi taldetik zozketan, errifak erosiz parte hartzen duten herritarrak, eta jatetxeak ere eskertu nahi dituzte.



### Beñat Aburuza, txapeldun

Infantil eta kadete mailako Espainiako Judo Txapelketa jokatu zen Alacanten. Beñat Aburuza txapeldun izan zen 66 kg baino gehiagokoen arteko mailan.

## Pilota Txapelketa, azken zortzirenetan

Aurreko asteburuan, Sagardo Eguna tarteko, partidak Zubietan jokatu ziren. Nagusien artean, Errasti-Katalinak 22-18 nagusitu ziren Hernaniko bikotearen aurka. Hauexek asteburu honetako partidak:

**MAIATZAK 30 LARUNBATA**
**goizeko 10:30ean Usurbilen**
**JUBENILAK**
Cruz-Zendoia / Artetxe-Garmendia
(URRETXU) (LASARTE)

**NAGUSIAK**
Ojuel-Oiaga / Ropón-Arzelus
(HERNANI) (AMEZKETA)

Lizaso-Pebet/Alegria-Mendinueta
(VILLABONA) (IRUÑEA)

**MAIATZAK 31 IGANDEA**
**goizeko 10:30ean, Usurbilen**
**JUBENILAK**
Tainta-Etxamendi / Bilbao-Lizeaga
(BURLATA) (HERNANI)

**NAGUSIAK**
Narbarte-Galarraga/Santxo-Lopetegi
(TOLOSA) (USURBIL)

Epelde-Galarraga/Vicente-Iparragirre
(TOLOSA) (LEITZA)

## Agenda

**Maiatzak 28 osteguna**
**Olarriondo-Ugartondoko etxeei buruzko bilera**. 18:30ean kiroldegian.

**Maiatzak 29 ostirala**
**Herri galdeketari buruzko bilera Sutegin**. 18:30ean Sutegin.

**Maiatzak 30 larunbata**
**Kantu-jira kalez kale**. 19:00etan frontoitik irteera. Usurbilgo Kantu Taldea.
**Korrontzi**. 20:00etan frontoian.

**Maiatzak 31 igandea**
**Mikel Laboari omenaldia**, 12:00etan frontoi atzeko plazan.

**Ekainak 1/ Ekainak 6**
**Kultur Astea Zubietan** (ekitaldi denak, ikus 14. orrialdean).

**Ekainak 2 asteartea**
**Santixabeletako Jai Batzordearen bilera**. 18:30ean kiroldegian.

**Ekainak 5 ostirala**
**"Gezurrezko printzea"**, antzerki saioa Sutegin. 22:00etatik aurrera, sarrera doan. Antolatzaileak: Hitz Aho-Kutxa.

# Larunbat honetan frontoian, Korrontzi folk talde bizkaitarra

**Folk doinuak berritzera etorri den taldea da Korrontzi. Bizkaitarrak dira eta duela gutxi plazaratu dute "Getxo" izeneko CD-DVDa, zuzenean grabatutako diskoa. Maiatzaren 30ean Usurbilgo frontoian izango dira, 20:00etan hasiko den kontzertuan.**



NOAUA!K ANTOLATU DUEN JAIALDIA DOAN IZANGO DA.

Bertan, musika munduko entzute handiko kolaboratzaileak izan dituzte: Mikel Urdangarin, Galiziako Faltriqueira taldea, La Musgañako Jorge Arribas, Susana Seivane eta Xavi Sarriak parte hartu zuten grabaketan.

### Proposamen berritzailea

Trikitia da Korrontzi taldearen oinarria. Agus Barandiaran taldekideak sortzen ditu abestiak trikitiarekin. Eta alboka, gitarra, mandolina, baxua eta bateriarekin konbinatzen dituzte doinuak, folk tradizionalari haize berriak ekarriz.

Iaz, Getxoko Nazioarteko Folk Jaialdian eskainitako zuzenekoa eskaintzera hurbilduko dira gure artera. Baina Korrontzi taldearen ibilbidea 2004an hasi zen. Urte hartan kaleratu zuten lehen diskoa, taldearen izen berarekin.

## Nork egingo du jaietako maskota aurten?

Santixabeletako maskota-egileen bila dabil Jai Batzordea. Animatzen dena ekainaren 2an 18:15ean udalera azaldu dadila. Gogoan izan Jai Batzordearen bilera ekainaren 2an izango dela, 18:30ean hasita. Bilera horretan erabakiko da Santixabeletako egitarau lehiaketako irabazlea.

## Ziortzako kanpaldia

Ziortzako kanpaldirako aurre izen-ematea egin zutenek orain izen emate formala egin behar dute. Maiatzaren 31 arteko epea dute. Informazio gehiago email honetan: ziortzage@gmail.com edo telefono zenbaki honetara deituz:
638 524 710 (Horazio).

## Lanbide Prestakuntza programak

Lan-mundura sartzeko bidea arindu asmoz, lanbide bat ikasteaz gain enpresetan praktikak egin daitezke. Honetaz gain, DBH graduatua lortzeko laguntza ere jasotzen dute ikasleek.

Usurbilen bi espezialitate eskainiko dira:

- Sukaldari-zerbitzari langilea (zerbitzari lana, gozogintza, okina, sukaldaritza).
- Ile-apainketa eta edergintza laguntzailea.

### Izen-ematea irekita

Maiatzaren 15etik uztailaren 17ra arte, Usurbilgo udaletxean. Informazio gehiago: 943 360 465
E-posta: lhi.usurbil@gmail.com

## Usurbilgo Lanbide Eskola

Ekainaren 1ean zabalduko da Usurbilgo Lanbide Eskolan aurrematrikula egiteko epea. Erdi eta goi mailako zikloak eskainiko dira, A eta D ereduetan. Lau arlo hauetako ikasketak egin daitezke:

-Administratiboa.
-Elektrizitate-elektronika.
-Fabrikazio mekanikoa.
-Ura eta energia. Produkzio zerbitzu eta mantenua.

### Aurrematrikula, ekainaren 12ra arte

Aurrematrikula datorren astean zabalduko da, eta ekainaren 12ra arte zabalik izango da. Informazio gehiago, 943 36 46 00 telefono zenbakian edota webgunean www.lhusurbil.com

## ETXEBIZITZA

-Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414
- Usurbilen, bikote batek logela (etxe berria) alokatzen dio bakarrik dagoen pertsona bati. Prezioa 280 euro gehi gastuak. 943 575 788 / 609901 734.
-Pisu bat daukat alokairuan eta pisukide baten bila nabil. Hilean 250 euro. 615 006 390.
-Santuenean etxebizitza bat daukagu salgai. 2 logela, sala, sukaldea eta komuna dauzka. 28 milioi negoziagarri. 619591849 / 626456448.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Pisua salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m2 - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m2), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berritua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- 3200 metro karratuko lur zatia salgai Kalezar auzoan. 665720913
- Peugeot 307a salgai. XS 2.0 HDI bersioa. 90 cv, 5 ate. 2002ko maiatzean matrikulatua, 149000 km ditu. Oso egoera onean dago. Korrea eta alternadore berriak ditu. Gris metalizatua, Parrot markako telefonorako esku- librearekin. 6000 euro negoziagarriak. 685725639.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
-"Yamaha especial 250" motorra salgai. Egoera onean, 700 euro. 615 006 390.
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
-50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Galtzaragainan (Dia ondoan) 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

## LANPOSTUAK

### Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.
- Usurbilgo Sendategian erizaina behar du OLT-EDU (ATS-DUE). Lan baldintzak jakiteko 943361124 telefonora deitu.

### Lan-eskaintzak

- Umeak zaintzeko Usurbilgo andre bat eskaintzen da, esperientziarekin. 659 628 447.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
-Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
-Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
-Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
-Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
-Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
-Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Maiatzak 8an Kodak markako kamara digital bat galdu genuen Kaxkoan. 678177129
-Agapurni txori bat galdu dugu maiatzaren 8an kaxkoan. Loro mota bat da eta gorputza grisa du, lepo eta buruak txuriak eta isatsa urdina eta grisa. Aurkitu baduzu, bueltatzea sarituko da. 943370722.
- Artzabal inguruan maleta txiki bat, kotzeko bi DVDrekin aurkitu dugu. Galdu duenak deitu 656774127 telefonora.
-Frantseseko klaseak ematen dira Usurbilen. Maila guztietakoak. Astelehen eta asteartetan arratsaldeko 20:30ean. Maiatzaren 4an hasiko gara. Informazio gehiago Laurok Liburudendan.

- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
-Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



**Zorionak Nahikari!** Ekainaren 1ean 5 urte beteko dituzu eta egun on bat pasa dezazula opa dizugu etxekoek. Muxu handi bat.



**Zorionak Mattin!** Maiatzaren 31n 10 urte egiten dituzu. Ondo ondo pasa eta muxu handi bat familikoen partez



**Zorionak Olatz!** Etxeko printzesak 10 urte egiten ditu maiatzaren 29an. Zorionak eta txokolatezko muxuak Jon, ama eta aitaren partez.

## HILDAKOAK

**Jose Domingo Martija Iparragirre**



Maiatzaren 21ean hil zen 86 urterekin. Zubietan.









# HERRIEN
## elkartasuna

www.iniciativainternacionalista.org



# iniziatiba
# INTERNAZIONALISTA

## MAIATZAK 29, 22:00etan
**KAFE-BIDEOA AITZAGA AURREAN**

## MAIATZAK 31, 13:30etan
**ARGAZKI ERRALDOIA DEMA PLAZAN**

# eta ekainaren 7an bozkatzera!

# Edertu zaitez!
















